



Gure zerbitzua martxan jartzeko hainbat kostu izango ditugula aurreikusten dugu, bi motatakoak; kostu finkoak eta kostu aldakorak.

Hasteko, gure kostu nagusia autobusa izango da, inbertsio bat izango dena etorkizunerako. Autobusa gordetzeko ere leku bat beharko dugu, baina zerbitzu egoki eta beharrezkoa denez udalak lokal bat utziko digu prezio oso merkean. Izango ditugun beste kostu finko batzuk, langileen soldatak izango dira, hala nola, autobus gidaria edo garbitzailea, astero garbitu beharko delako autobusa ( zerbitzua eman eta gero) bezeroak gustora egon daitezten. Bestalde, guretzat oso garrantzitsua izango den segurua ere ordaindu beharko dugu. Horretaz gain, elikagai enpresari adostutakoa ordaindu beharko diogu astero edari eta bokata desberdinak eskaini ahal izateko.

Bigarrenik, kostu aldakorak ere izango ditugu. Adibidez, autobusa kargatzeko behar dugun elektrizitateak kostu desberdina izango du, udan gehiagotan kargatu beharko dugu eskainiko dugun zerbitzua zabalagoa izango delako, eta bestalde elektrizitatearen prezioaren arabera ere gure kostua aldatuz joango da. Azkenik, JAI BUSaren publizitatea egingo dugunez honen kostua ere denboraldiaren menpe egongo da. Udan neguan baino publizitate gehiago egingo dugulako (herrietako jaiak direla eta).